

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza berrantolatzea eta aldatzea

2020ko irailaren 2an egindako ohiko bilkuran, erabaki zen behin betiko onespena ematea zerbitzuak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza berrantolatzeari eta aldatzeari, aurkeztutako alegazioak ezetsi ondoren. Ordenantzaren testua honela geratu da idatzita:

Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak xedatzen duenarekin bat etorriz (azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatu zuen arau hori), eranskinean ageri diren zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik prezio publikoak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baitira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzekoa da.

3. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoak zerbitzuen edo jardueren onuradunek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen tarifak eranskinean daude jasota.

5. artikulua

Kopuru horiek eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta ezingo dira murriztu epigrafeetan azaltzen diren zenbatekoak.

6. artikulua

Ordenantza honetako zerbitzu edo udal jarduerak jaso ahal izateko, aurrez horien eskaera egin beharko zaio Legutioko udalari. Zerbitzu edo jarduera horiek emanda daudela ulertuko da ordenantza honetako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean eta luzatu ondoren; prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortzen da.

Hala ere, dagoeneko eman edo luzatutako zerbitzuak edo jarduerak badira, ordaindu beharra sortzen da dagozkien tarifetan adierazten diren aldietako bakoitzaren lehenengo egunean.

8. artikulua

Prezio publikoa udal kutzetan zuzeneko diru sarrera eginez ordainduko da, zerbitzua eman edo jarduera egin aurretik eta adierazitako zenbatekoan.

Hala ere, prezio publikoak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

9. artikulua

Dagokion zenbatekoa itzuliko da jarduera egiten ez bada eta ez egitearen arrazoiak ezin bazaizkio egotzi prezio publikoa ordaintzeko betebeharra duenari.

10. artikulua

Prezio publiko horiek ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

11. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

ERANSKINA

1. epigrafea: fotokopiak, faxak eta kopiak CDan

A) Fotokopiak egitea udal bulegoetan eta liburutegian.

A-4 zuri-beltzean	0,10 euro orrialdeko
A-4 zuri-beltzean bi aldeak	0,15 euro orrialdeko
A-4 koloretan	0,60 euro orrialdeko
A-3 zuri-beltzean	0,20 euro orrialdeko
A-3 koloretan	1,20 euro orrialdeko

B) Faxeak.

Lurralde barruan eta lurralde artean	0,10 euro orrialdeko
Nazioartekoa	0,50 euro orrialdeko
Jasotzea	0,10 euro orrialdeko

C) Kopiak CDan.

Kopiaren kostua (CDa barne) 3,80 euro CDko

Salbuespenak: udalerriko administrazio batzarrak eta egoitza udalerrian duten irabazteko xederik gabeko entitateak.

2. epigrafea: kirol jarduerak

Erabiltzaileek ordaindu beharreko kuotak:

A) Kirol denboraldia (urria-ekaina). Kuotetako batzuetan, denboraldi osoa ordainketa bakarrean ordaindu ahal izango da, edo zatikatu ahal izango da, hiru hilean behin ordaintzeko; hiru hilean behin ordaintzeko aukera eskatuz gero, ordainketa nahitaez helbideratu beharko da:

16 URTETIK BEHERAKOAK, ORDUAK ASTEAN	DENBORALDIKOA	HIRU HILABETEKOA
1	54,00	20,00
1,5	80,00	28,00
2	108,00	40,00
2,5	135,00	47,00
3	160,00	60,00

16 URTETIK GORAKOAK, ORDUAK ASTEAN	DENBORALDIKOAK	HIRU HILABETEKOA
1	90,00	35,00
1,5	135,00	50,00
2	180,00	65,00
2,5	225,00	80,00
3	270,00	95,00

16 URTETIK GORAKOAK, ORDUAK HILEAN	DENBORALDIKOAK
1	40,00
2	80,00

SPINNING-A	DENBORALDIKOAK	HIRU HILABETEKOA
	240,00	85,00

IGERIKETA	DENBORALDIKOAK	HIRU HILABETEKOA
8 urte baino gutxiagoak	70,00	25,00
9 eta 16 urte bitartekoak	80,00	28,00

B) Beste kirol jarduerak

Hilabeteko jarduerak	
Astean bi eguneko jarduerak	50,00
Astean egun bateko jarduerak	30,00
Bi hilabeteko jarduerak	
Astean bi eguneko jarduerak	90,00
Astean egun bateko jarduerak	50,00
Kirol ekitaldietarako izen ematea	
Federatu gabeko helduentzako BTT martxa	12,00
Federatutako helduentzako BTT martxa	10,00
Gazteentzako BTT martxa aurreratua (9-15 urte)	2,00
Gazteentzako BTT martxa egunean bertan (9-15 urte)	4,00
Jarindo-Albertia helduak (federatu gabekoak)	10,00
Jarindo-Albertia helduak (federatuak)	8,00
Jarindo-Albertia aurreratua gazteentzat (9-15 urte)	2,00
Jarindo-Albertia gazteentzat egunean bertan (9-15 urte)	4,00

Kuota horiei buruzko oharra:

– Jarduerei aplikatzen zaizkien kuotak 3 urteko epean, aplikatzen hasten diren egunetik zenbatzen hasita, dagokion monitorearen kostua finantzatzeko kalkulatu dira. Aurrekoa gorabehera, udalak bere gain hartuko du jarduerak emateko erabiltzen den lokal bakoitzaren garbiketa zerbitzuen, energia elektrikoaren, gasaren eta abarren kostua.

– Jarduera baten monitorearen kostua, jarduera amaitzean, kuotak kobratzeagatik jasotakoa baino txikiagoa bada, aldea itzuliko zaie parte hartzaileei.

– Jarduera bat hasteko, udalaren alde aurreko balorazioa beharko da.

Kirol jardueren kuotei aplikatu beharreko arauak:

Denboraldi jardueretako kuota itzuli ahal izango da hasi eta lehenengo hilean, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta.

Denboraldi jardueren hasieratik hilabete igarota, ez da kuotarik itzuliko.

Bestalde, denboraldikoak ez diren jardueren kuota (hilabete batekoak edo bikoak) itzuli ahal izango da jarduera hasi eta lehenengo astean, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta.

Denboraldikoak ez diren jardueren (hilabete batekoak edo bikoak) hasieratik astebete igarota, ez da kuotarik itzuliko.

Dagoeneko hasita dauden jardueretan, otsaila arte kuota osoa ordainduko da, eta martxoaren 1etik aurrera urteko kuotaren ehuneko 60.

Ehuneko 40ko hoberia emango zaio familia unitateko pertsona bakoitzeko kuota bati, eta urteko familia errentaren honako kalkulu honen emaitza hartuko da kontuan: Zerga oinarri orokorra + aurrezkiaren zerga oinarria – kuota likidoa, urteko errentaren atalase hauen arabera:

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOPURUA	MUGA
1	18.000,00 euro
2	25.000,00 euro
3	30.000,00 euro
4	33.000,00 euro
5 edo gehiago	35.000,00 euro

Hoberia udal zergen ordainketetan egunean daudenei bakarrik aplikatuko zaie.

3. epigrafea: fitness aretoa

Kuota (16 urtetik gorakoak)

Fitness aretoa, monitore baten laguntzarekin (laguntza taulak prestatzea, etab.): 160,00 euro urteko eta 50,00 euro hiru hilabeteko.

Fitness aretoa, monitore baten laguntzarekin (laguntza taulak prestatzea, etab.) eta sauna (30 minutu): 240,00 euro urteko eta 75,00 euro hiru hilabeteko.

Ehuneko 50eko hoberia emango zaie langabeei eta ikasleei (24 urtera arte).

Ehuneko 40ko hoberia emango zaio familia unitateko pertsona bakoitzeko kuota bati, eta urteko familia errentaren honako kalkulu honen emaitza hartuko da kontuan: Zerga oinarri orokorra + aurrezkiaren zerga oinarria – kuota likidoa, urteko errentaren atalase hauen arabera:

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOPURUA	MUGA
1	18.000,00 euro
2	25.000,00 euro
3	30.000,00 euro
4	33.000,00 euro
5 edo gehiago	35.000,00 euro

Bi hoberi horiek udal zergen ordainketetan egunean daudenei aplikatuko zaizkie, eta, nolahi ere, pertsona bakoitzeko hoberi bakarra emango da.

Txartela galtzea: 6,00 euro.

4. epigrafea: kirol instalazioak alokatzea

Kiroldegia: 35,00 euro orduko, argirik gabe

40,00 euro orduko, argiarekin

Pilotalekua: 20,00 euro orduko, argirik gabe

25,00 euro orduko, argiarekin

Kiroldegian eta frontoian dutxatzea: 2,00 euro

Asteburu eta jaiegunetan edonork erabili ahal izango ditu instalazioak doan (dutxarrik gabe)

5. epigrafea: kultura jardueren tasa

Erabiltzaileek ordaindu beharreko kuotak:

A) DENBORALDIKO JARDUERAK (URRITIK EKAINERA)	DENBORALDIKOA	HIRU HILABETEKOA
1 ordu astean	65,00	25,00
1,5 ordu astean	100,00	35,00
2 ordu astean	130,00	45,00
2,5 ordu astean	160,00	60,00
3 ordu astean	190,00	68,00

B) HIRU HILABETEKO JARDUERAK	
Astean 1 orduko ikastaroak	50,00
Astean 2 orduko ikastaroak	90,00
Astean 3 orduko ikastaroak	120,00

C) HILABETEKO IKASTAROAK EDO LABURRAGOAK (PUNTUALAK)	PREZIOA ORDUKO
Helduak	10,00 euro
Haurrak	6,00 euro

D) Haurrentzako udalekuak: 7,00 euro eguneko eta parte hartzaileko

Kuota horiei buruzko oharra:

Jarduerari aplikatzen zaizkien kuotak 3 urteko epean, aplikatzen hasten diren egunetik zenbatzen hasita, dagokion monitorearen kostua finantzatzeko kalkulatu dira. Aurrekoa gorabehera, udalak bere gain hartuko du jarduerak emateko erabiltzen den lokal bakoitzaren garbiketa zerbitzuen, energia elektrikoaren, gasaren eta abarren kostua.

Jarduera baten monitorearen kostua, jarduera amaitzean, kuotak kobratzeagatik jasotakoa baino txikiagoa bada, aldea itzuliko zaie parte hartzaileei.

Jarduera bat hasteko, udalaren alde aurreko balorazioa beharko da.

Kultura jarduerari aplikatu beharreko arauak:

Denboraldi jardueretako kuota itzuli ahal izango da hasi eta lehenengo hilean, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta.

Jardueraren hasieratik hilabete igarota, ez da kuotarik itzuliko.

Bestalde, denboraldikoak ez diren jardueren kuota (hilabete batekoak edo hirukoak) itzuli ahal izango da jarduera hasi eta lehenengo astean, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta.

Denboraldi jarduerak ez diren jardueren (hilabete batekoak edo hirukoak) hasieratik astebete igarota, ez da kuotarik itzuliko.

Dagoeneko hasita dauden jardueretan, otsaila arte kuota osoa ordainduko da, eta martxoaren 1etik aurrera urteko kuotaren ehuneko 60.

Ehuneko 50eko hobaria emango zaio familia unitateko pertsona bakoitzeko kuota bati, eta urteko familia errentaren honako kalkulu honen emaitza hartuko da kontuan: zerga oinarri orokorra + aurrezkiaren zerga oinarria – kuota likidoa, urteko errentaren atalase hauen arabera:

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOPURUA	MUGA
1	18.000,00 euro
2	25.000,00 euro
3	30.000,00 euro
4	33.000,00 euro
5 edo gehiago	35.000,00 euro

Hobaria udal zergen ordainketetan egunean daudenei bakarrik aplikatuko zaie.

6. epigrafea: txangoak

Multiabentura asteburuak: 135,00 euro

Egun bateko txangoak: 10,00 euro

7. epigrafea: kultura instalazioak alokatzea

Ekitaldi aretoa: 60,00 euro orduko

Elixoste plazako lokalak: 30,00 euro orduko

Kultura instalazioak alokatzeari aplikatu beharreko arauak:

Lokal horiek, edukieraren arabera, doan utziko zaizkie bilerak, hitzaldiak eta abar egiteko, honako hauei:

- Erregistratutako kultura eta kirol elkarteak
- Erregistratu gabeko tokiko elkarteak eta tokikoak ez direnak, baldin eta kultura eta gizarte interesa badago eta giza eskubideak sustatzen edo defendatzen badituzte
- Garazi ikastola eta osasun zentroa
- Erakunde publikoak: DFA, Eusko Jaurlaritza, Gorbeialdeko Kuadrilla

Legutio, 2020ko irailaren 3a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO